

EBAZPENA, 2021ko irailaren 1ekoa, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiarena, Uholde Prebentzioko teknikari lanpostua betetzeko prozesuaren Kalifikazio-epaimahaiko kideak izendatzen dituen.

Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiaren 2021ko uztailaren 6ko Ebazpenaren bidez, Uraren Euskal Agentzian zenbait lanpostu behin betiko betetzeko eta lan-poltsak eratzeko hautaketa-prozesuari buruzko IRAGARKIA argitaratu zen 2021ko uztailaren 9ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA 135. zk.). Argitara emandako lanpostu horien artean dago Uraren Euskal Agentziaren Uholde prebentzioko teknikari lanpostua.

Uraren Euskal Agentziako Uholde prebentzioko teknikari lanpostua betetzeko hautaketa-prozesua arautzen duten oinarrien seigarren oinarrian zehaztutakoari jarraituz, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiak izendatutako epaimahai batek ebaluatuko du prozesua.

Horiek guztiak horrela,

ERABAKI DUT

Lehenengoa.- Uraren Euskal Agentziaren Plangintza eta Lanen Zuzendaritzako Uholde prebentzioko teknikaria hautatzeko prozesuko Kalifikazio-epaimahaiko kideen izendapena egitea.

	Titularra	Ordezkoa
Presidentea	Jose M ^a Sanz de Galdeano Equiza (Uraren Euskal Agentzia)	Iñaki Arrate Jorrín (Uraren Euskal Agentzia)
Mahaikidea	Christian Stocker (Uraren Euskal Agentzia)	Aitziber Urquijo Luengo (Uraren Euskal Agentzia)
Idazkaria	María López de Heredia (Uraren Euskal Agentzia)	M ^a Teresa Mena Aguilar (Uraren Euskal Agentzia)

Bigarrena.- Ebazpen hau Uraren Euskal Agentziaren web-orrian (www.uragentzia.euskadi.eus) eta Campo y Ochandiano kanpoko aholkularitza-enpresaren web-orrian (www.campo-ochandiano.com) argitaratzea.

Gasteiz, 2021ko irailaren 1a.

Antonio Aiz Salazar

Zuzendari nagusia
Uraren Euskal Agentzia